

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2018/2019 ikasturtea**

**EMAKUME ERREFERENTEAK LEHEN HEZKUNTZAKO  
SEIGARREN MAILAN:  
LORPENAK ETA ERRONKAK**

**Egilea: Maitane Apodaka Basaras**

**Zuzendaria: Zuriñe Gaintza Jauregi**

**Leioan, 2019ko maiatzaren 28an**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	3
1. Esparru teorikoa .....	4
1.1. Hezkidetza: aurrekariak .....	4
1.2. Legedia .....	6
1.3. Hezkidetza helburu duten materialak .....	7
1.4. Hezkidetzara bideraturiko proiektua: <i>Inspira</i> proiektua .....	10
2. Metodologia .....	12
2.1. Laginaren deskripzioa .....	12
2.2. Prozedurak eta erremintak .....	13
3. Emaitzak eta eztabaida .....	14
3.1. <i>Inspira</i> proiektuan parte hartu duten ikasleen iritzia eta balorazioa .....	14
3.2. Emakumeak pertsonaia historiko bezala identifikatzea: erreferenteak .....	15
3.2.1. Erreferenteak generoaren arabera .....	16
3.2.2. Aukeratutako erreferenteen profil profesionala .....	17
3.3. Ikastaldeak erabiltzen duen testu liburuaren analisisa: estereotipoak .....	18
4. Ondorioak .....	21
5. Bibliografia .....	23

## ERANSKINAK

1. Eranskina. Ikasleei grabatutako bideoaren transkripzioa .....	26
2. Eranskina. Ikasgelako nesken eta mutilen taldeak aukeratutako pertsonaia .....	27
3. Eranskina. <i>Santillana</i> liburuaren analisisa .....	29

## **EMAKUME ERREFERENTEAK LEHEN HEZKUNTZAKO SEIGARREN MAILAN: LORPENAK ETA ERRONKAK**

**Maitane Apodaka Basaras**

**UPV/EHU**

Gaur egun gero eta gehiago entzuten da hezkidetzaren hitza, eta legeek generoen arteko berdintasuna babesten dute. Horregatik, gaur egungo irakasleen betebeharrak bat hezkidetzaren hezteko da; horretarako erreferente femeninoak emanez, eta duela gutxira arte gizonen ikuspuntua jarraituz antolaturiko hezkuntza berrituz, neskek ere identifikatzeko aukera izan dezaten. Asmo berritzaile hori aurrera eramateko proiektu ezberdinak sortu dira, *Inspira* adibidez. Lan honetan Lehen Hezkuntzako seigarren mailan ezarritako *Inspira* proiektuaren eragina behatu, baloratu eta ea ikasleek beraien eguneroko bizitzan nolako erreferenteak dituzten aztertu dit. Horrez gain, maila horretako ikasleek erabiltzen duten ikasliburu batean emakumeen presentzia zenbatekoa den eta emakume horiek zer nolako zereginak betetzen agertzen diren analizatu dit. Berdintasun utopikotik ea uste bezain hurbil ote gauden eta behatutako ikastaldean emakume erreferenteak modu berdintsuan aipatzen diren aztertzen du lan honek.

*Hezkidetzaren, genero berdintasuna, emakume erreferenteak, androzentrismoa, eskola*

Actualmente cada vez escuchamos más la palabra coeducación, y las leyes protegen la igualdad de género. Por eso, la función de los docentes es hoy en día educar en la igualdad, en una escuela que hasta hace poco estaba organizada desde una perspectiva masculina, aportando referentes femeninos que posibiliten a las alumnas identificarse. Para materializar este objetivo innovador han surgido múltiples proyectos, entre ellos *Inspira*. En este trabajo, se analiza y valora la influencia de implementar un proyecto como *Inspira* en un grupo de sexto de primaria, y también los referentes que las alumnas y los alumnos tienen en su día a día escolar. Además, se estudia la presencia de las mujeres en un libro escolar que utiliza este grupo y los roles que las mujeres desempeñan en el mismo. Como se muestra en las conclusiones, este trabajo analiza hasta qué punto nos acercamos a la igualdad utópica y si en el grupo estudiado aparecen los referentes femeninos de la misma manera que los masculinos.

*Coeducación, igualdad de género, referentes femeninos, androcentrismo, escuela*

Coeducation is a word that is becoming more prominent than ever, with laws reinforcing gender equality. Currently, it is part of a teachers' job to educate the students in a way that embraces equality, offering women references and restoring an education that has been predominantly directed towards men, so that also girls can get the opportunity to identify themselves. To adopt this innovative aim different projects have developed such as *Inspira*. In this research, I have observed and evaluated the outcome of the *Inspira* project that has been applied in the sixth grade of primary education along with the analysis the references students present in their daily life. Moreover, this study also encompasses a textbook that is most widely used by students of sixth grade where the portrayal of women in the textbook and the activities they frequent are examined. This research scrutinizes if we are as close as we think to the utopic equality and if students have women references in academia.

*Coeducation, gender equality, women references, androcentrism, school*

## SARRERA

Hezkuntzan hezkidetzaren gaia aspaldiko erronka izan da eta 70 hamarkadan gai hau lantzen hasi zen mugimendu feministak indarra hartu zuelako. Ordutik hona, hainbat ikerketa egin dira hezkuntza esparru ezberdinak aztertuz.

Orain arte egin dena kontutan hartuta, nik gaur egun Lehen Hezkuntzako seigarren mailako neskek erreferente femeninoak dituzten eta erreferente horiek nolakoak diren aztertuko dut. Ikastetxe batean hiru hilabetetan zehar egindako praktikak oinarrizatzetik burutuko dut GRAL hau. Horretarako, lehenbizi marko teorikoan hezkidetzaren aurrekariak aztertuko ditut. Izan ere, emakumeak ez dira beti hezkuntzaren parte izan eta horrek emakumeen presentziarik gabeko hezkuntza androzentrista bultzatu du. Horregatik, urteetan zehar emakumeek ez dute inolako erreferenterik izan, maskulinoak kontsideratzen ziren arloetan. Ondoren, legedia aztertu dut. Azken urteetan legeek berdintasuna ziurtatzeko hainbat neurri hartu dituzte eta umeei emakume erreferenteak eskaintzea da horietako bat. Hezkidetzaren garrantzia ulertzeko, legetan gai honen bilakaera aztertu dut. Esparru teorikoarekin amaitzeko, material berriei buruz informazioa bilatu dut. Esan bezala izandako hezkuntzaren ondorioz gaur egun material berriak zein proiektuak egiten dabilta, berdintasuna bultzatuko dutenak, zaharrek emakumea diskriminatzen zutelako.

Esparru metodologikoan, hiru ildo ezberdin aztertu ditut. Lehenik, berdintasuna bultzatzea helburu duen proiektua aztertu dut, *Inspira*. Proiektu honek bere helburuak bete dituen neurtzeko proiektuan parte hartu duten seigarren mailako ikasle talde baten galdera batzuk egin eta bideo bat grabatu dut. Bigarrenez, talde horretan egindako aurkezpenetan emakumeen presentzia zenbatekoa den aztertu dut. Amaitzeko, ikastalde berean erabiltzen den Gaztelaniako liburua aztertu dut, bai irudietan zein testuan emakumeen presentzia zein den ikusteko, eta estereotipoak bultzatzen dituen edo material hezkidetzailerak den zehazteko.

Azkenik, ikusitako guztiarekin ondorio batzuk atera ditut. Lanean ikusten den bezala, hezkidetzan lan asko egin den arren, eta lorpenak dauden arren (proiektu berriak) erronkak ere aurkitu ditut emakume erreferenteak ikasgelan aurkitzeko orduan.

## 1. ESPARRU TEORIKOA

### 1.1. Hezkidetzak: aurrekariak

Askok kritikatzeko dute gaur egungo eskola sistemak generoaren arabera aukera ezberdinak bultzatzen dituela (González, 2005). Izan ere, egun dugun hezkuntza sistema eskola tradizionalaren jarraipena da arlo askotan.

Historian zehar hezkuntza gizonei bideratuta baino ez da egon, ikuspuntu androzentrista nagusitu delarik (Sánchez, 2002). Ikuspuntu honek, gizona jartzen du gizartearen ardatz eta emakumeen ekarpenak alde batera uztea ekarri du. Androzentrismo horrek gizonezko erreferentia baino erakusten ez duen ereduak gauzatzen ditu: emakumeek kulturaren egiten dituzten ekarpenak aintzat hartu gabe, haien bereziki interesgarriak izan daitezkeen gaiak alde batera uzten ditu eta aurreiritziak erabiltzen dira emakumei buruzko baieztapenak egitean (Brullet eta Subirats, 1990).

Ikuspuntu hori urteetan zehar mantendu izan da gizartean eta gaur egun, neurri handi batean jarraitzen du gure eskoletan ere (Fresnedo eta Gabilondo, 2018). Oraindik hezkuntza hezkidetzalea urrun dagoen helburu bat dela esaten denean, heziketa sistema hau (eta hortik testuliburuetan agertzen diren genero rolak) nondik datorren ulertu behar da lehenengo.

Hasieran, Erregimen Zaharreko Europar gizonak baino ez zeukan hezkuntzarako eskubidea; beraz, hezkuntza guztiz bideratuta zegoen gizonen interes eta gizartean betetzen zituzten zereginetara (Capel, 2007). Aurrerago, Ilustrazioarekin, egoera hau kuestionatzen hasi ziren. Esate baterako, Rousseauk (1990) emakumeak ez direla etxerako lanetara mugatu behar eta ezjakintasunean bizi behar aldarrikatu zuen (Capel, 2007). Baieztapen honek garai horretarako aurrerapausoa ekarri zuen arren, azpimarratu behar da Rousseauen iritziz emakumeak eskolatu behar zirela gizonentzat erabilgarriak izan zitezkeen. Bere ustez, emakumeen lana gizonak zaindu, aholkatu eta kontsolatzea zen, eta horretarako hezi behar ziren (Brullet eta Subirats, 1990).

Horrela, emakumea eskolatu egiten da baina gizonengandik bereziki ikasten dute eskola ezberdinetan, curriculum desberdinekin. Emakumeen curriculumak ama eta emazte “on” bat bilakatzea zuen helburu, gizonak produkzio zein lan mundura bideratzen ziren bitartean.

Ildo honi jarraiki, Espainian frankismo garaiko gizarte eremuan emakumearen autonomia bultzatzen zuen edozein gauza ukatzen zuen legediak (Ortiz, 2006). Horrela, emakumeak

menpe eta baztertuta geratu ziren, etxeko zereginetara mugatuta. Errepublika garaian lortutako garaiekin konparatuta, atzerapauso nabarmena ekarri zuen honek denbora luzez (Ortiz, 2006).

Testuinguru honetan, 60 hamarkadatik aurrera orokortu zen egungo eskola mistoa Europan. Mutil zein neskek espazio fisiko berean elkartu ziren eta curriculum berdina zeukaten. Hala ere, neska-mutilak elkartzea ez da hezkidetza, aldatu behar dena kultura eredia badelako ere (Subirats, 2009). Urruzolak (1991) dioen bezala, eskola misto horretan ez ziren irakasgaietako edukiak aztertu eta lehenagotik erabiltzen zen ikuspuntu androzentristaren ildotik irakasten jarraitu zen. Izan ere, neska-mutilak elkartu arren gizartean rola oso markatuta zeuden, emakumeen rola gutxietsita zegoelarik, eta eskola mistoak horren isla izaten jarraitu zuen. Eskolak gizonezkoen mundua izan den alor publikorako prestatzen zuen, nahiz eta emakumeak ere bertan egon. Horrela, gizonezkoen ikuspuntu eta estereotipoak jarraituz jaso zuten emakumeek hezkuntza, alde batera utzirik emakumearekin lotzen ziren gaitasunak: afektibitatea, emozioak, pazientzia, etab. (Urruzola, 1991).

Aurrerago, hezkidetza 90 hamarkadan kezka nagusi bilakatu zen (Mañas-Viejo, 2018) eta ordutik aurrera ekarpen asko egin izan dira. Hezkidetza “femeninotzat” eta “maskulinotzat” hartu izan dena fusionatuz pertsonaren eredu integral bat sortzea litzateke (Brullet eta Subirats, 1990). Salasek *Hezkidetza eredia egiteko gidan* definitzen duen bezala:

Hezkidetza pertsonen garapen integrala lortu ahal izateko behar-beharrezko eremutat definitzen dugu. Ikastetxeek estereotipo maskulinoak eta femeninoak baztertzeko bidea emango duten hezkuntza-eredu integralak eskaini behar dituzte, ikasle bakoitzak, genero-nortasuna alde batera utzita, bere nortasuna eraiki dezan eta gaitasun guztiak garatzea lor dezan (Salas, 1997).

Eskolako edukietan genero ikuspegia txertatzea beharrezkoa dela ikusi da eta horrek hausnarketarako bidea ireki du. Izan ere, genero ikuspegia XX. mendearen bigarren erdian garatzen hasi zen kontzeptua da, Beijingeko 1995eko konferentziak adostu zuen idazkian agertu zen, beste hitz batzuekin batera: genero analisia, genero berdintasuna, etab. (Novoa, 2012). Feminismoak egin dituen azterketak abiapuntutzat hartuz, normalizatuta ditugun estereotipoak zalantzan jarri eta eduki berriak sortzean datza genero ikuspegia, berdintasunean eta ekitatean oinarritzen den gizarte bat eraikitzeko (Hendel, 2017).

Azken hogei urte hauetan, XXI. mendean aurrerapauso nabarmenak eman izan dira, hezkidetzaren beharra legeek ere aitortu dutelarik. Historiak aurrera egin duen heinean, hezkuntza lege berriak sortu dira eta, hurrengo atalean ikusiko den bezala, hezkuntzaren helburu nagusizat jotzen da berdintasuna ardatz izatea, neska-mutilen identitatea eraikitzeke.

Halaber, eskola material berritzaileak sortu dira, proiektu hezitzaileak eta berdintasuna lantzeko bereziki sorturiko teknikariak ere. Honek guztiak erakusten du interes jakin bat sortu dela XXI. mende honetan eta eskolak beharizan honi erantzun behar diola.

Sorturiko intereseekin batera gizartean ere gai honen inguruko legeak agertuz joan dira. Jarraian, lege horiek hezkidetzaren gaiari nola aurre egiten dioten aztertzen da.

## **1.2. Legedia**

Gaur egun dugun legediak hezkuntza hezkidetzzaileak duen garrantzia azpimarratzen du. Izan ere, sexuen arteko berdintasuna lortzea 1978ko Konstituzioak 14 eta 9.2 artikuluetan adierazita agertzen da, eta debekatu egiten da sexu oinarria duen edozein diskriminazio mota. Halaber, botere publikoen ardura dela dio benetako berdintasuna gauzatzeko baldintza egokiak ziurtatzea (art. 14 eta 9.2).

1990eko hezkuntza legeak (LOGSE) urrats garrantzitsu bat ematen du hezkidetzza bultzatzeko. Hitzaurrean, hezkuntza bidez gizartean bizitza posible izatea egiten duten baloreak transmititzen direla baieztatzen da eta hezkuntza bidez desberdintasunaren eta diskriminazioaren aurka jokatu daitekeela esaten du, diskriminazio horien artean sexu oinarria duena ere aipatuz. Ildo horretatik, hezkidetzza Haur Hezkuntzan hasi behar dela dio lege honek, hezkuntzaren helburu nagusia neska-mutilei euren identitatea eraikitzeke prestakuntza eskaintzea delako.

Euskal Herriko Autonomia Elkarterako Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duen 1992ko abuztuaren 11ko dekretuaren laugarren atalean, Lehen Hezkuntzako ikasleek garatu behar dituzten gaitasunen artean honako hau agertzen da: “d) Pertsonekin, egoera sozial ezagunetan, harreman orekatu eta emankorrak finkatzea, elkartasunezko jokabide batez, sexu, gizarte maila, sinesmen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatiko bazterkeria oro errefusatuz” (1992ko abuztuaren 11ko dekretua).

Halaber, lege honetan agertzen diren zortzi zeharkako gaietako bat da berdintasunerako heziketa. Zehar-lerroak ohiko diziplina edo arloen barruan sartzen ez diren eta landu behar diren hezkuntza edukiei esaten zaie. Lege honen arabera, ezinbestekoa da arlo

guztietan eduki hauek lantzea, baina ez modu puntualean baizik eta irakaslearen egunerokotasunean aplikatuz. Euskal Herriko curriculumean bereizita agertzen da sexuen arteko berdintasunerako hezkuntza edo hezkidetzaren eskolan landu beharreko zehar-lerro bezala (Yus, 1998).

Gaur egun, indarrean dagoen Heziberri dekretuaren (236/2015 Dekretua) 2. artikuluan Oinarrizko Hezkuntzaren irizpide orokorrak zehazten direnean, honako hau dio:

g) Oinarrizko Hezkuntzak pertsonaren garapen integralari laguntzen dio, alde batera utziz sexuaren arabeko estereotipoak eta rolak, bai eta bereizkeria mota oro ere, generoaren eraginik gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatuz. Horretarako, ikastetxeek emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko dute alor guztietan: curriculum, antolaketa eta abar.

Ildo beretik, aipaturiko dekretu honek hirugarren kapituluaren curriculumaren antolamendua deritzon ataleko 17. artikuluan zehaztu egiten du eskolaren helburuetako bat dela “hezkidetzaren helburuak arloetan eta ikasgaietan txertatzea”. Gaur egungo eskolak bai hezkuntza proiektua egitean zein arlo bakoitzaren curriculumetan aintzat hartu behar ditu hezkidetzaren helburuak. Hala nola, estereotipoak eta rolak desagertzea, emakumeek historian egin dituzten ekarpenak integratzea, irakasten diren materialak berrikusiz eta ikasleak genero baldintzapenik gabe hezi, etorkizunean egingo dituzten ikasketak aukerak genero rolaren arabera izan ez daitezkeen. Baita ere, gatazkak sortzen direnean indarkeria saihestuz beste konponbide batzuk bilatzen irakastea, genero indarkeria prebenitzeko. Gainera, tutoretzan landu beharreko gaiak direla zehazten du ere.

Beraz, hezkidetzaren ez da irakasleok dugun aukera bat, baizik eta eskoletan bete beharreko zeregin nagusi bat pertsonaren garapen integrala bideratzeko orduan. Horren arabera, sexuen arabeko estereotipoak alde batera utzi behar dituzte eskola barruan dauden eduki, ekintza, jardura, pertsona edo jokabide orok. Genero bereizkeria baztertu, bakoitzak bere etorkizuneko ikasketak eta lanbideak gaitasunen arabera aukera ditzala ziurtatu behar du eskolak. Horregatik, dagoena aztertu behar da (antolakuntza, materialak, edukiak, irakasleen jokabideak ... ) eta aipaturiko berdintasun helburu hori lortzeko behar diren material hezkidetzailleak sortu.

### **1.3. Hezkidetzaren helburu duten materialen beharra**

Aipatu bezala, hezkidetzaren umeak beraien generoa alde batera utzita berdintasunean heztean datza. Horrela, aukera berdina izango lituzkete eta ez lirateke gaur egun ematen diren egoerak gertatuko.



Urruzolak (1995) adierazten duen bezala, neskak zein mutilak genero maskulino eta femeninotik aske heztean datza, bere indibidualtasunaren garapena sustatuz eta gizarte sexista batek eskatzen dizkien rola kontuan hartu gabe.

Horretarako, eskolak kontzienteki eredu ezberdin batzuk eskaini behar ditu, edukietan emakumeen ekarpenak azaleratuz eta emakumeen presentzia areagotuz. Testuliburuetan zentratuz, Bilbaok (2008) ikonografia ere “mugatu” eta “estereotipatu” beteta dagoela salatzen du. Emakumeak lan egiten agertzen dira baina gehienetan lan hauek zaintzarekin daude erlazionatuta.

Argitaletxeak material hezkidetzailleak sortzen saiatu dira, edo emakumeen presentzia liburuetan areagotzen. Hala ere, “argitaletxeek, asko jota, egiten dutena da nesken eta mutilen presentzia orekatu” eta sarritan emakumeek egindakoa ez da agertzen edo gehigarri bat bezala agertzen da (Ugarte, 2005). Gauzak horrela, Bilbaok (2008) Euskal Herrian euskaraz erabili diren material ezberdinak aztertu ditu garai desberdinetan zehar. Duela urte batzuekin konparatuz gizonen presentzia gutxitu dela ikusi du, baina hala ere irudietan agertzen diren estereotipoek jarraitzen dutela ikusi du.

Testuliburuetan ikus daitezkeen pertsonarik gehienak gizonaek dira, lehen bezala orain ere. Lehengo epean % 18,02ko maiztasuna dute; oraingoetan % 10,20ra jaitsi diren arren, gizona helduaren estereotipoa mantentzen da eskolan ikusten diren ikono gehienetan. Azken urteko testuliburuetan, gizonak eta emakumeak batera agertzen diren ikono garrantzi handiagoa ematen zaien arren, oraindik ere emakumeen presentzia urria da (Bilbao, 2008).

Umeak gizaki sozialak diren heinean, ikusten dutena imitatzen dute. Hedabideetan, etxean eta kalean ikusten dutenak eragina du beraien nortasuna eta baloreak eraikitzeko momentuan. Umeek egunaren erdia eskolan pasatzen dute eta eskola ezagutzak jasotzeko bide garrantzitsua da, baina baita ere balore sozial zein kulturalak hartzen dira bertan. Horregatik, oso garrantzitsua da irakasleak eskola-materialen erabiltzaile pasiboak ez izatea eta material hauek egokitzeko, aldatzeko edo modu ezberdinetan erabiltzeko aukera daukatela ikustea (González, 2005).

Urte asko igaro diren arren, Blancok (2000) azpimarratzen du eskoletan erabiltzen diren material gehienetan sexismoa eta androzentrismoa argi ikusi daitezkeela. Hainbat ikerketek erakutsi duten bezala (Bian, Leslie eta Cimpian, 2017) ume txikiak ez daukate oraindik nagusiagotan garatzen duten neska edo mutil arteko desberdintasun kontzeptu hori, eta txikitan neskak kapaz ikusten dira mutilen gauza berdinak egiteko. Adinak aurrera egin ahala, ordea, sozializazio prozesuaren ondorioz genero-identitateak markatzen hasten dira. Baliteke, ikerketa honek erakusten dituen datu kezagarri horiek

nesken erreferente faltagatik izatea. “Eskolak neskei ez die emakumeen erreferentziarik eskaintzen, eta erreferente horiek klabeak dira identitatea eraikitzeko” (Ugarte, 2005). Neskek ez badute erreferente femeninorik, badirudi historian zehar emakumeek ez dutela ezer egin ezagutzaren arlo esanguratsuetan edo familiarik kanpo. Honek neskak desmotibatu egingo ditu eta erreferenteak aurkitzen dituzten beste arlo batera joko dute edo beraien hasierako ametsa alde batera utziko dute.

Scratonek (1995) dioenez, ikasleak eskolatik identitate markatu batekin irteten dira, sexuengatik banatutako gizarte batera egokitzen direlarik etorkizunean. Horregatik, sexismoa behaketa eta hausnarketaren bidez zuzentzea hezkuntzaren zeregina da (Brullet eta Subirats, 1990).

Bai eskola-materialak egiten dituztenek zein irakasleek beraien egunerokotasunean inkontzienteki burutzen dituzte gizartean nagusi diren jokabide diskriminatzaileak (Balbuena, Aleixandre eta Ouvrard, 1993). Garrantzitsua da irakasleek ikasgelan erabiltzen dituzten materialak eta azpitik transmititzen den mezua zaintzea. Curriculum ezkutuak norbera ohartu gabe jarrerak eta arauak inkontzienteki barneratzen ditu (Brullet eta Subirats, 1990). Ikusteko zaila da baina ezinbestekoa da ezkutuko mezu horiek aztertzea eta ikasleei pasiboki erakusten diegunaz hausnarketa egitea.

Horregatik, Salasek (1997) dioten bezala, ikasleek zer nolako gaitasunak eta baloreak garatzen dituzten ikusteko ikasmaterialak, ikasgelaren programazioa, etab. aztertzea ezinbestekoa da.

Are gehiago, hezkuntza mistoa sortzen joan den heinean, tradizionalki gizonentzat ziren ikasketak orokortu egin dira (matematika, historia, natura...) baina emakumeentzat zirenak (jostea, zaintza, sukaldaritza...) curriculumetik guztiz desagertu dira ez direlako ezinbestekotzat jotzen edo ez delako eskolaren arduratzat hartzen. Hezkuntza ez formalaren eremutzat jotzen dira, familian ahoz transmititzen direlarik eta horregatik ez daude curriculumetan, bizitzarako oso garrantzitsuak diren arren (Brullet eta Subirats, 1990). Beste autore batzuk ere aldarrikatzen dute ezagutza horiek integraturik egon beharko lirakekeela irakasgai ezberdinen curriculumetan, eskola benetan hezitzailea izan dadin (Solsona, 2010).

Lehen esan bezala, legeak hezkidetzat bultzatu behar dela zehazten du, eta horregatik gaur egungo hainbat erakunde berdintasunean heitzeko materiala eta proiektu ezberdinak sortzen hasi dira. Jarraian, proiektu horietako bat aztertuko da.

#### 1.4. Hezkidetzara bideratutako proiektua: *Inspira* proiektua

Azken urteetan, hezkidetzara bultzatzeko helburuarekin hainbat proiektu bultzatu dira eskoletan. Horien artean, aipagarriak dira Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek bideratutako *NAHIKO!* programa, emakumeen aurkako indarkeria saihesteko, batez ere Bigarren Hezkuntzan abian jarri dena. Horrez gain, Nafarroako *SKOLAE* programak emakumeen aurkako indarkeriari buruz kontzientziatzeaz gain, emakume erreferenteak eskaintzea eta maskulinitate berriei buruz hausnartzea du helburu. Nik, ordea, *Inspira* proiektua aztertuko dut, emakume erreferenteak eskaintzea helburu duena eta aztertutako ikastaldeak proiektu horretan parte hartu duelako.

*Inspira* proiektuari dagokionez, nesken bokazio zientifiko eta teknologikoa bultzatzeko Euskadin sortu den proiektua da. Izan ere, askotan STEAM (Science, Technology, Engineering, Arts and Maths) arloan emakumeen presentzia txikiagoa dela ikusi dezakegu eta horren ondorioz sortu zen proiektua. Berrikuntza honi esker, urte honetan 44 ikastetxe ezberdinetako 1.000 neska baino gehiagok parte hartu dute. Programa hau sei saioz osatuta dago eta ikastetxe honetan bigarren aldiz aplikatu da aurtan. Ikasturtearen hasieran sei saio jaso zituzten ikasleek honi buruz. Klase bateko mutilak tutorearekin geratzen diren bitartean, neskek *Inspira* taldean parte hartzen duten borondatezko aholkulariekin (zientzialariak, teknologoak) joaten dira. Saio hauen helburuak neskei STEAM arloan dauden emakumezko erreferenteak erakustea da eta gizartean dauden estereotipoak ezagutzea, horrela neska hauek etorkizuneko ikasketak edo lanak aukeratzeko orduan estereotipo horiek alde batera utzi ditzaten. *Inspiraren* manifestuan agertzen den bezala (*Inspira* Web orria, 2016) gainditu beharreko erronka da parekotasun eza. Izan ere, hori ez da neskek gaitasun apalagoa dutelako edo zientzia gutxiago gustatzen zaielako gertatzen, baizik eta estereotipo, genero rol eta sozializazioak eragindako sinesmenengatik. Egoera hau aldatzeko hainbat gauza egitea beharrezkoa da:

1. Berdintasuna dagoenaren mitoaren inguruan hausnarketa egin.
2. Emakumeek zien gizonek gaitasun, eskubide eta erantzukizun berdinak dituztela onartu.
3. Berdintasun eza saihesteko ekimen positiboen behar izanaren kontzientzia hartu.
4. Neskei erreferente zientifiko zein teknologoak ezagutarazi.
5. Estereotipoak apurtu eta genero rolak gainditu.

6. Neskak animatuko dituen ingurunea sortu.

7. Emakumeak ahalduntzen lagundu.

*Inspirako* aholkulariek eta ikastetxetako seigarren mailako saio hauek zientzia eta teknologiaren inguruko ikasleen motibazioa areagotzea dute helburu. Izan ere, *Inspira* proiektua aurkeztean adierazten den bezala, Espainiako unibertsitateetan %54,3a emakumezkoa izan arren teknologiarekin lotura duten graduetan %26koa da emakumeen presentzia.

Nahiz eta Deustuko Unibertsitateak bultzatzen duen proiektua izan Katalunian, Madrilen, Cadizen eta Galizian ere zabaldu da.

Ekimen hau seigarren mailan gauzatzen da adin horretan nesken espektatibak jaisteaz gain segurtasun eza eta beldurrak ere agertzen direlako. Izan ere, 11-13 urte bitarteko adina erabakigarria da, umeak orduan zertan balio duten eta zertan ez ohartzen direlako. Ikerketek erakusten duten bezala (Lirgg, 1991) nesken auto-estimua nabarmenki jaisten da adin honetan. Horregatik, emakumeen erreferenteak eskaintzea ezinbestekoa da neskak identifikatuta sentitu daitezen eta haien etorkizuneko erabakietan eragina izan dezan. Gainera, Lehen Hezkuntzatik DBH-ra joango direnez momentu egokia da gustatzen zaienari buruzko hausnarketa bat egiteko.

Sei saio hauek neskak eta mutilek banatuta lantzen dituzte. Mutilak ikasgelan bere betiko tutorearekin geratzen diren bitartean, neskak *Inspirako* mentore batekin joaten dira. Une jakin batean egiten den banaketa hau hausnarketan sakontzeko da, sororitatea lantzeko; hau da, emakumeen arteko elkartasun sakon eta konplexua (Lagarde, 2009) eta neskak protagonista bihurtzeko. Aldi berean, mutilek talde txikian antolaturik gizartean dituzten abantailez jabetzea helburu duen hausnarketa egingo dute. Banaketa honen helburua gero talde handian hausnarketa aberatsago bat gauzatzea litzateke.

Hau guztia dela eta, gaur egungo eskolan dugun errealitatea behatzea helburu izanik, alde baterik, lan honetan aztertu nahi da ea zenbateraino erabiltzen diren material berriek erreferente femeninoak eskaintzen dituzten eta eraginkorrak diren nesken eguneroko bizitzan. Izan ere, orain arte erreferente femeninoak ukatuta egon dira eta ikusezintasuna baztertzailerak izateaz gain indarkeria bultzatzen du (Fresnedo eta Gabilondo, 2018). Bestetik, ikasleek dituzten testuliburuetan emakumeek duten presentzia kuantifikatu nahi izan da ere, eskola hezkidetzaileraren helburua zenbateraino lortuz doan ala ez aztertzeko. Horretarako, seigarren mailan aplikatutako *Inspira* proiektuaren balorazioa egiteaz gain,

ikasleek egindako aurkezpenetan emakumeen presentzia zenbatekoa den neurtu dut eta azkenik Gaztelaniako *Lengua Santillana* (Honrado, Romero, Luna eta Romo, 2009) liburua aztertu dut.

## 2. METODOLOGIA

Nire ikerketarako gaur eguneko ikastetxe batean dugun errealitatearen inguruko datuak jasotzea izan dut helburu. Horregatik, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako talde batean burutu dituzten hezkidetzaren inguruko proiektu bat aztertu dut (*Inspira*) eta horrek ikasleengan izandako eragina. Beraz, ikerketa hau modu kualitatiboan egin dut nagusiki ikasleen eguneroko praktika, haien iritzia eta lorpenak jaso ditudalako. Horrez gain, kuantitatiboki ere neurtu dut ikasleek erabiltzen duten Gaztelania liburuan emakumeak duen presentzia.

Aztertutako ikasle eta proiektua aplikatutako testuinguruari dagokionez, ikastetxe honetan 1.900 ikasle daude eta maila sozioekonomiko ertain-altukoak dira gehienak. Ikastetxe kontzertatu bat da, familien kooperatiba eta ikastetxeak helburutzat dauka seme-alaben garapen integrala. Haien Hezkuntza Proiektuaren arabera, proiektu euskaldun, eleanitz, dibertsifikatu eta berriztatzaile batez bere inguruaren eta munduaren partaide izango diren pertsona adeitsu, erantzule eta trebeak lortu nahi dira. Horregatik, Elkarbizitza Planaren barruan hezkidetzat txertatu dute, eta urtean zehar hainbat ekimen egiten dituzte gai horren inguruan.

Hiru hilabete hauetan ikusitako ekimenei buruzko behaketa kualitatibo bat egin dut, ezaugarriak aztertuz eta hezkidetzat lortzeko zenbateraino baliagarriak diren baloratuz. Hau da, teorikoki lortu nahi dena ea benetan praktikan gauzatzen den aztertu nahi izan dut, aurrerapenak eta gabeziak ikusiz.

### 2.1. Laginaren deskripzioa

Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikastalde batean egin da behaketa. Taldean 26 ikasle dira, 16 neska eta 10 mutil. Gehienak 11 urte dituzte edo 12 bete berri, errepikatu duen batek izan ezik (honek 13 urte ditu).

Ezagutza maila altua duen gela bat da, eta gehienek ikasteko ohitura garatuta dute. Emaitei dagokionez, badaude oso bikainak diren ikasleen kopuru esanguratsua eta gehienek azterketak gainditzen dituzte. Taldean oso nabarmena egin zait neska talde

baten jarrera lehen egunetik. Akademikoki bikainak izateaz gain, ahozko aurkezpen oso onak egiten dituzte eta beti daude laguntzeko prest eta erreferente femenino positiboak aurkezten dituzte aukera daukatenean.

## 2.2. Prozedurak eta erremintak

Esan bezala, behaketa hauek egitean aztertu nahi izan dut ea azken urte hauetan hezkidetzaren helburua lortzeko aurrera pausuak izan dituzten ala ez. Horretarako, hiru ildo nagusi aztertzeraz bideratzen da lan hau:

- Alde batetik, ikastetxea *Inspira* proiektuan murgildurik dago eta nire behaketa proiektu horren ezaugarriak eta helburuak ezagutzera mugatu da, bibliografia erabiliz.

Ikasleen balorazioa ere jaso dut galdera batzuk planteatuz, eta bideo formatuan jasoz lau neska-mutilen iritziak. Horretarako, talde osoarekin *brain storming* bat egin genuen arbelean denon artean. Nik guztira lau galdera prestatu nituen eta umeei galdetzean beraien eskua altxatu eta erantzuten zuten. Boluntario batek arbelean erantzunetan irteten ziren hitz klabeak apuntatzen zituen eta nik erantzunak jasotzen nituen ere.

Ondoren, bideo bat grabatuko nuela esan nien eta ea nork agertu nahi zuen galdetu nien. Parte hartze aktiboa izandakoetatik eta nesken zein mutilen presentzia orekatuz, talde bat antolatu nuen (3 neska eta 2 mutil). Beraz, borondatez parte hartu zuten grabaketan eta haiek erabaki zuten nork egingo zituen galderak eta nork erantzungo zuen. Bideoaren transkripzioa, galderen arabera antolatuta eranskinetan aurki daiteke (Ikus 1. eranskina). Honekin, ondoren generoaren araberrako emaitzak aurkeztuko dira.

- Bestetik, aipaturiko *Inspira* proiektua ikasturte hasieran egin zuten eta nik praktika aldiaren proiektu honen zenbait ondorio behatu ahal izan ditut ikastaldearen eguneroko bizitzan.

Egunero ikasle ezberdin batek hizkuntza arloan ahozko aurkezpen bat egin behar izan du, pertsonaia historiko bat aukeratuz. Gaztelaniako klasean egin dituzten pertsonaia historikoen aurkezpen horiek taula baten jaso ditut, mutilen taldea eta nesken taldea bereiziz eta pertsonaia historikoaren ondoan haren ekarpen nagusia adieraziz (Ikus 2. eranskina). Taula hori oinarri hartuta balorazio kualitatibo eta

kuantitatibo bat burutu dut, *Inspira* proiektuak aukeraketa horietan izan duen eragina baloratu.

- Azkenik, Gaztelaniako *Santillana* argitaletxearen Lehen Hezkuntzako seigarren mailako liburuak duen genero trataera aztertu dut, talde honek gaztelania lantzeko erabiltzen duen liburua delako.

Liburu hau, hamabost ataletan dago antolatuta eta sarrera gisa irakurgai bat egoten da beti, gaiaren oinarri eta ardatz dena. Beraz, atal osoan zehar egiten diren ariketa guztiak (gramatika, lexikoa, ortografia ... ) ulermen-testu horri egiten diote erreferentzia.

Liburu honetan emakumearen presentzia neurtzeko hasierako bost gaiak aukeratu ditut eta taula baten jaso ditut datu esanguratsuenak: ulermen-testuetako pertsonaietan gizon- eta emakume-kopurua, gaian zehar dauden irudietan zenbat emakume agertzen diren eta betetzen duten rola, ariketetan egiten diren emakumearen aipamenak (Ikus 3. eranskina).

Taula horretan jasotako datuen balorazio kualitatibo eta kuantitatiboa egin dut jarraian. Kualitatiboa egiteko, emakumeak agertzen direnean zer egiten dauden aztertu dut eta horrez gain ere, ariketetan pertsonaia femenino bat agertzean esaldiaren testuingurua aztertu dut. Kuantitatiboa egiteko, irudiak zenbatu ditut gai bakoitzean, irudi horietako zenbatetan agertzen diren emakumeak aztertzeko.

### 3. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

#### 3.1. *Inspira* proiektuan parte hartu duten ikasleen iritzia eta balorazioa

Emaitzei dagokionez, *brainstorming*-an atera ziren eta nik jasotako ikasleen erantzunak honako hauek dira:

- Neskentzat proiektu hau “gizartea aldatzeko proiektua” da, “emakumeen eskubideak bultzatzeko”, “estereotipoak hausteko”, “desberdintasunei buruz hitz egiteko”. Ikusten denez, neskei proiektu honek munduan beraien lekua aurkitzen lagundu die, eta leku hori gizonekin partekatu dezaketela erakutsi die.

Aldi berean, taldean ekintza hau egitean neskak dira protagonismo nagusiena erakutsi zutenak eta haien erantzunak luzeagoak eta sakonagoak ziren. Horrez gain, erreferenteak aurkitu dituzte eta neska batek baino gehiagok aipatu du

etorkizunean zer izan nahi duen aukeratzen lagundu diola “*Inspirari* esker biologa marina eta astronomia izan nahi dut handitan”.

Jabetu dira emakumeek oraindik gure gizartean berdintasunik ez dutela “desberdintasunak ikusiko ditugu, baina jarraitu behar dugu borrokan”.

- Mutilei dagokionez, erantzunak azalekoagoak dira: “interesgarria”, “asko ikasi dut”, “nagusitan horretan pentsatuko dugu”, “emakumeari buruz asko ikasi dugu”. Badirudi ez dutela beraien gai nagusizat hartzen, eta neskak baino inplikazio gutxiago ikusi dut haiengan orokorrean.

Hala ere, berdintasuna lortu beharreko zerbait dela onartzen dute “baina falta da eskubide gehiago izatea berdintasuna izateko”. Pertzepzio ezberdin hau izan daiteke ere modu ezberdinean lan egin delako mutilekin eta neskekin eta proiektuaren helburua neskak ahalduntzea delako batez ere, neskei erreferenteak eskainiz.

### 3.2. Emakumeak pertsonaia historiko bezala identifikatzea: erreferenteak

Ikasleek egindako pertsonaien aukeraketa aztertuz, honako emaitzak azaleratu dira:

- Ikasgelako hamasei nesketatik, hamaika ikaslek emakume bat aurkeztu zuten, eurek aurkeztutako pertsonaien %68 emakumeak izan zirelarik.
- Aldiz, mutilek aukeratu zituzten pertsonaien %100 gizonak izan ziren.
- Horrenbestez, agertutako pertsonaien %42 izan ziren emakumeak, erdia baino gutxiago, neskak gehiengoa diren ikastalde batean.

Neskek dituzten erreferente motak aztertzeaz gain, mutilek aukeratu dituzten pertsonaia historikoen zeregina edo rola ere aztertu dut (1. Grafikoa, 2. Eranskina).

Ikasleek egin zituzten ahozko aurkezpen hauetan ikusten da *Inspira* STEAM programak eragin nabarmena izan duela neska gehienek egin duten aukeraketan. Pertsonaia horiek oso ekimen eta aurkikuntza aipagarriak egin dituzten emakumeak izan arren (askotan gizarteak haiengandik espero zuenaren kontra joanez), ezezagunak egiten zaizkigu gehienoi eta baita irakasleei ere. Emakume hauek ikasgelan presentzia bat izatea eta neskek erreferentetzat hartzea oso garrantzitsua da hezkidetzan aurrera egiteko.

Aldiz, mutilek erreferente ugari dituztela ikusi da, mota guztietakoak: zientzialariak, artistak, baina gehienbat heroi edo botere politikoarekin loturikoak. Ikasgelako neska- eta




mutil-kopurua berdina izango balitz, 26 aurkezpenetik 11 pertsonaia emakume izatea ez dirudi emaitza txarra litzatekeenik, taldearen ia erdiak emakume bat aukeratu duela adieraziko lukeelako. Baina taldean 16 neska eta 10 mutil daudela kontutan hartuz, 11 emakume bakarrik aukeratu izanak hausnarketa egitera bideratzen gaitu.

### 3.2.1. Erreferenteak generoaren arabera

Aukeratu dituzten pertsonaien generoari dagokionez, honako hau nabarmendu daiteke:

- Alde batetik, agertutako emakume guztiak neskek aurkeztuak izan dira eta hau guztiz positibotzat jo dezakegu, erreferenteak hartzen dabiltzala erakusten digulako eta *Inspira* proiektuak eragina duela adierazten duelako.
- Hala ere, ohikoa den arren mutilek beste gizon batzuk hartzea eta erreferentetzat ikustea, *Inspira* proiektuak bultzatzen duen hausnarketa hori mutilengan ez dela gauzatu erakusten digu, batek ere ez dutelako interesgarritzat jo besteen aurrean aurkezteko pertsonaia gisa emakume baten bizitza edo egindako aurkikuntza.



1. Grafikoa. Erreferenteak talde-generoaren arabera.


Jokabide horrek emakumearen presentzia jaitsi egin du aurkezpen hauetan. Nahiz eta neska gehienak erreferente berri horiekin gehiago identifikatu eta harro sentitu, mutilen erresistentzia horrek esan nahi du proiektuan murgildu izanak ez diela hauei lagundu haiek hasieran zituzten erreferenteekin gelditu direlako, ezer kuestionatu gabe eta eroso. Bestalde, datu bilaketa egiterakoan askoz ere errazago aurkitzen dira protagonista maskulinoen lorpenak, eta eskolaz kanpo aurkitzen duten inguruak ere aukeraketa horretan eragina izango du, dudarik gabe.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da neska talde handi baten hautuan ikusten den aldaketa. Emakumeari protagonismoa eman diote ikasgelan haien ahozko aurkezpenei esker eta programa hezkidetzailleak martxan jartzen direnean, ikasgela honetako nesken artean, behintzat, aldaketa egiteko motibazioa pizten dela ikusi dut. Ikerketen arabera, 10 urtetako neskek badira gai emakumeen diskriminazioa ikusteko eta non dagoen zehazteko (Brown eta Bigler, 2004).

### 3.2.2. Aukeratutako erreferenteen profil profesionala

Ikasleek aukeratu dituzten pertsonaiek duten profesio edo lanbideari dagokionez emaitza hauek agertu dira (2. eta 3. Grafikoak):

- Taldean orokorrean aukeratutako pertsonaiak zientziarekin (%35) eta botere politikorekin (%27) dute lotura.




2. Grafikoa. Erreferenteen profila talde osoan.

- Nesken taldea aztertzen badugu, beraien gehiengoa zientzialariak direla ikusiko dugu (%44) eta mutilen taldean, ordea, botere (%60) politikoa dutenak.
- Honek esan nahi du gizonen erreferenteak gaur egun ere agintea eta lidergoarekin loturik daudela. Izan ere, gizarte gehienetan mutilak agresibo eta kompetitibo izateko hezten dira, eta biolentzia identitate maskulinoaren sinbolotzat hartzen dute (Anderson eta Umberson, 2001).
- Nesken taldean botere politikoa duten pertsonaiak agertzen diren arren gutxiengoa dira (%6). Gainera, botere politikoa duen eta neskek aurkeztutako pertsonaia bakarra gizon bat da: Franco.
- Neskek aukeratutako erreferenteen gehiengoa zientzialariak izatea eta zientzialari horietatik gehienak emakumeak izateak adierazten digu *Inspira* proiektua

baliagarria izan dela ere, zientziarekin loturiko emakumeen izenak deskubritzeko momentuan.

- Nesken taldean maila berean daude kirolari erreferenteak zein gizarte laguntza erreferenteak (%19). Kirolari dagokionez, hiru pertsonaia aukeratu dituzte, horietatik bi emakumeak direlarik.
- Interesgarria izan da neska hauek emakume kirolariak aurkeztean beraiek ere kirol berdina egiten dutela ikustea, haientzat emakume kirolari ezagun horiek eredu baliagarritzat harturik.
- Bestetik, gizarte laguntzan erreferenteak aurkitzea oso lotuta dago emakumeari eman zaion zaintza ardurarekin. Barberá, Candela eta Ramosen (2008) ikerketak dioenez, “zaintza eta arreta zereginak emakumearen rolaekin loturik baloratzea genero estereotipoen iraupena erakusten du”.
- Horrez gain, nesken taldean gizarte laguntzari loturiko pertsonaiak %19 diren bitartean, mutilen taldean ez da bat ere ez agertzen. Honek erakusten du mutilentzat ez dela erreferente modu altruista batean zerbait egiten duen pertsona, eta nahiago dituztela bai zientzia edo artean asko nabarmendu diren gizonezkoak: Hawking, Picasso, Freddie Mercury, besteak beste.



3. Grafikoa. Erreferenteen profila nesken taldea eta mutilen taldea.

### 3.3. Ikastaldeak erabiltzen duen testu liburuaren analisisa: estereotipoak

*Santillanako* Lengua ikasliburuak duen genero trataera aztertu ondoren honako emaitzak atera ditut:

- Liburuak hamabost ulermen-testu ditu eta bakarrik hirutan dute protagonismo nagusia emakumeek; hau da, %20.

- Beste guztietan ez dira agertzen edo agertzen badira pertsonaia sekundarioak dira emakumeak.

Horregatik, emakumeak bigarren plano batean uzten dituen eredia barnera dezakete ikasleek “materialak osagai sexistak badituzte, eredu estereotipatuak transmititzeko arriskua badago” (Fresnedo eta Gabilondo, 2018).

Emakume bat protagonista nagusia den bi ulermen-testuetan esanguratsuak dira aukeratutako pertsonaia historiko biak: Agnodice, Greziako lehen emakume medikua eta Irena Sendler, poloniar erizaina. Lehenak, oztopo handiak gaindituz eta gizonez mozorrotuz medikuntza ikastea eta hainbat emakumeren bizitza salbatzea lortu zuen. Bigarrenak, nazien menpe zegoen Varsovian ezkutuko lan handia eginez eta askotan bere bizitza arriskuan jarriz 2.500 ume baino gehiago salbatzea lortu zuen. Hezkuntza hezkidetzaille baten ildotik, neskek har ditzaketen emakumeen erreferente oso baliagarriak dira biak.

Baina emakumea protagonista den hirugarren ulermen-testuko pertsonaia, Atalanta greziar mitologiako emakume gaztea, askea, borrokalaria eta independentea dena, gizonak menperatzen duen emakumea da, borrokan galdu ondoren gizonarekin ezkondu behar delako. Beraz, istorio honek ez du laguntzen neskek erreferente berriak aurkitzen, betiko eredu estereotipatua transmititzen baitu.

Gaztelania liburu horretako bai irudietan zein ariketetan emakumearen presentzia eta betetzen duen rola ikusteko lehen bost gaiak aztertuz egin dut behaketa, kuantitatiboki eta kualitatiboki neurtuz (Ikus 3. eranskina).


Bost gai horien azterketa kualitatiboari dagokionez, nabarmena da liburuaren ikuspuntu androzentrista:

- Aipatu bezala, gaiari hasiera emateko irakurketa bat egoten da eta hauek ipuin klasikoak, mitoak edo elezaharrak dira, batik bat. Ipuin hauetako gehienetan dagoen genero perspektiba guztiz maskulinoa da. Horietako batzuetan pertsonaien artean emakume bakar bat ere ez da agertzen eta horrek guztiz baldintzatzen du jarraian aurkeztuko den guztia; izan ere, jarraian planteatzen diren jarduera guztietan irakurgaietako esaldiak, pertsonaiak, etab. agertzen baitira. Esate baterako oso esanguratsua da Mongoliari buruz aurkitu daitekeen testua eta horri loturik garatzen den gaia, ariketak, etab. Testua irakurrita badirudi

Mongolian ez dela emakumerik bizi, ez delako behin ere beraien aipamenik egiten.

- Horrez gain, argazki guztietan edo ariketan gizonak baino ez dira agertzen eta maskulinoa erabiltzen da kasu guztietan. Fresnedo eta Gabilondok (2018) aipaturiko “ikusezintasun baztertzalea” dario aipaturiko 2. gai honi. Testua idaztean baliteke gaztelaniako maskulino generikoan idatziz emakumeak ere partaide direla adierazi nahi izatea, baina irudiek (gizonak guztiak) ez dute helburu horretan laguntzen. Jakina da gainera, hainbat ikerketen arabera, generikoa erabiltzen denean gure buruak ez duela neutro bezala interpretatzen. Are gehiago, umeez pertsonaia maskulinoak imajinatzeke joera daukatela maskulino generikoa erabiltzen denean (Leaper, 2007).
- Hasierako ulermen-testuez gain, liburu honetarako bereziki asmatu den ipuin laburra agertzen da 3. gaian, ikasleek ipuin bat sortzeko proiektuaren eredutzat hartu behar dutena. “Aventura en la cueva” du izena eta hor agertzen diren pertsonaia biak, espeleologoa eta bildumagilea, gizonak dira ere.
- Aipatu bezala, 4. gaian Agnodice lehen greziar emakume medikua da protagonista, neskek har dezaketen emakumeen erreferente oso baliagarria dena. Baina gaiaren amaieran gaur eguneko medikuen lana aztertzen duen “Médicos Sin Fronteras” artikulua agertzen da, eta ez azalpen-testuan, ez irudietan, ez jardueretan ez dago emakumearen aipamen bakar bat ere.

Halaber, liburuan zehar literatura atalean 8 idazle agertzen dira eta bat bakarra da emakumea: Carmen Conde. Beraz, emakumearen presentzia liburu honetako literatura sailean %12,5 mugatzen da (5. Grafikoa).



5. Grafikoa. Literaturako erreferenteak.

Gainera, duela gutxi egin diren beste ikerketa batzuen arabera, literatura liburuetan emakumeen presentzia %6-12 artekoa izaten da eta derrigorrezko hezkuntza etapetan garrantzitsua da erreferente kultural femeninoak ematea. Izan ere, errotuta dagoen ideia da emakumeak modu esanguratsuan ez dutela ia parterik hartu giza-eta kultura-garapenean; ideia oker horrek gizartean bigarren mailako zeregina ematen dio

emakumeari eta ez zaio duen garrantzi soziala aitortzen, boteretik aldentzen duelarik (López eta López, 2012).

Alarioren (2002) arabera, “ezkutatze prozesu honek emakumea agente sortzaile gisa imajinatzeko aukera bera ere gehien kontzientziatik ezabatu egin du; uste hau emakumeak artista izatea ukatu egin duen tradizio akademiko batean oinarritzen da”.

Hau guztia dela eta, aztertu dudana Gaztelania liburuko literatura atalean 8 erreferentetik bakarrik emakumea izateak emakumeak literaturaren historiatik ezabatzea dakar, eta ikasleentzat ikusezina bilakatzen du emakumeek egin dituzten ekarpenak literatura munduan, neskek tradizio eta erreferente gabe utziz.

#### 4. ONDORIOAK

Marko teorikoan ikusi denez, hezkuntza beti gizoni bideratuta egon da, eta horregatik emakumeak ere hezkuntza hau jasotzen hasi diren arren ikuspuntu androzentrista bat izan du beti, eta ikerketa honek adierazten digun bezala oraindik ere mantentzen du. Beraz, gaur egun ere emakume erreferenteak alde batera uzten jarraitzen da, bai materialetan zein eskola edukietan.

Urteak aurrera egin duten heinean, hau saihesteko eta berdintasuna lortzeko legeak onartu dira, emakumeen presentzia gizonena bezain nagusia izatea eskatzen dutenak. Are gehiago, derrigorrezkoa da legeak dioena eskoletan gauzatzea eta, ondorioz, genero ikuspegia integratuta izan beharko litzateke bai ikasgai ezberdinetan zein eskola bizitzan, horrela neskek ere erreferente femeninoak izateko aukera izan dezaten.

Zoritxarrez, gauzak hobetu diren arren, oraindik ere ez dago parekatuta eta lan asko dago egiteko. *Inspira* bezalako proiektuak egiten umeak kontzientziatzea lortzen da: hausnarketa bat bultzatzen delako, erreferenteak eskaintzen zaizkielako. Baina gehienetan proiektu hauek puntualak izaten dira sei astekoa kasu honetan, epe laburreko proiektu bat izan da. Izan ere, benetako emaitzak lortzeko eskola bizitzan zehar landu beharko litzateke edo ikastetxearen egunerokotasunean etengabe aintzat hartu beharko liratekeen erronka izan beharko luke. Nolanahi ere, proiektu puntual honen balorazioak ikusita, neska gehienak erreferente femenino batekin identifikatzea lorpen bat dela esan dezakegu.

Umeekin *Inspira* proiektuari buruzko hausnarketa egitean neskek kontzientziazatuta daudela ikusi dut, baina desberdintasunak sumatu ditut nesken eta mutilen erantzunetan. Badirudi, mutilak ez daudela hain inplikaturik baina, bestetik, neskei erreferente ugari ematea lortu duela. Neskek egindako aurkezpenetan nabarmendu da hori, emakumeak aukeratu dituztelako gehienetan.

Erresistenteei dagokienez, ikastaldeak erabiltzen duen liburu bat aztertzean oso nabaria egin da emakumeen presentziaren falta. Liburu osoko 15 gaietatik hirutan baino ez dira protagonista nagusiak, beste guztietan pertsonaia sekundarioak direlarik, eta askotan agertu ere ez dira egiten. Gainera, emakumeen presentzia agertzen denean ere estereotipatua da gehienetan eta gizonek egindako asmakizunak, abenturak, istorioak... kontatzen dira behin eta berriz.

Gaztelaniako liburu bat da eta maskulino generikoa erabiltzen da denbora guztian. Literatura atalean ere, emakume bakarra aipatzen da, nahiz eta jakina den aztertzen diren urteetan zehar hainbat espainiar idazle emakume izan direla. Irudietan, gizonen presentzia nagusitzen da, irudiak gaiaren hasierako ulermenarekin lotuta daudelako, eta ulermen-testuetan gizonak protagonista izatean gaien zehar agertzen diren irudiak ere androzentrismoak dira, emakumeak pertsonaia sekundario bezala agertuz edo estereotipoak jarraituz.

Horrela, emakumeen irudi gehienak idazten, zaintza lanetan, entzuten edo hitz egiten ari dira; salbuespen gisa, birritan sari batekin eta behin gidatzen daudelarik. Mingol-ek (2009) azaltzen duen bezala liburuetakako irudietako manipulazioa da bide boteretsuena zaintzaren kultura emakumearekin lotzeko. Gainera, testu liburuetan genero rola bultzatzen direla salatzen du. Dioenez, azken urteetan liburu hauek zuzentzeko lana egin den arren oraindik asko falta da egiteko, eta aztertutako liburu honek erakusten du hori nabarmenki.

Halaber, gizarteak azken urte hauetan eskaintzen duen testuingurua oso mesedegarria da genero estereotipo hauen inguruko hausnarketa pizteko. Eskolak ekarpen handiak egin ahal dituen arren egunerokotasunean gai hauek lantzen, *Inspira* bezalako proiektuetan parte hartzen edo irakasleak formatzen emakume erreferenteak eskaini dituzten, ez da dena eskolaren lana.

Izan ere, ikasleek erabiltzen dituzten materialek genero rola bultzatu eta gizonen presentzia baino ez badute erakusten lan guztia alferrikakoa da. Horregatik, beharrezkoa

da material hezkidetzailleak sortzea, eskolan partaide diren elementu guztiek berdintasuna bultzatu dezaten.

Hau guztia derrigortzen duten legeak izanda erabateko kontraesana da nik aztertu dudana bezalako liburuak egunero erabiltzea, aldi berean berdintasuna gauzatzeaz hitz egiten denean. López eta Lópezek (2012) diotenez, “emakumeen ekarpenak aitortzen eta gordetzen ez duen kultura bat, faltsutua eta osatu gabeko kultura da”.

Autore hauek salatzen dute horrelako testuliburuek historia osatu gabe eskaintzeaz gain desberdintasunak iraunarazten laguntzen dutela. Horregatik, nik aztertu dudana ikastaldeko emaitzek islatzen dute ere mutilen erreferenteak ez direla gehiegi aldatu eta agintea eta lidergoarekin loturik izaten jarraitzen dutela, zaintzari loturiko ereduak neskengan eragin handia mantentzen duten bitartean. Etorkizuneko irakasle bezala hezkidetzaren gure erronka bat dela ikusi dut, eta legediak bete behar bezala zehazten duen arren askotan ez dela betetzen. Hala ere, hori aldatzeko momentu egokian bizi gara, proiektu berriak eta hori babesten duen giza mugimendu batean murgilduta gaudelako.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- Alario, T. (2002). Mujer y arte. In González, A. eta Lomas, C. (Koord.), *Mujer y educación. Educar para la igualdad, educar desde la diferencia*, (77-94 or.). Graó. Bartzelona.
- Anderson, K. L., eta Umberson, D. (2001). Gendering violence: Masculinity and power in men's accounts of domestic violence. *Gender & society*, 15(3), 358-380 or.
- Balbuena, E. S., Aleixandre, M. P. J., eta Ouvrard, F. D. (1993). Un currículo de Ciencias equilibrado desde la perspectiva de género. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 11(1), 51-58 or.
- Barberá, E., Candela, C., eta Ramos, A. (2008). Elección de carrera, desarrollo profesional y estereotipos de género. *Revista de Psicología Social*, 23(2), 275-285 or.
- Bian, L., Leslie, S., eta Cimpian, A. (2017). Gender stereotypes about intellectual ability emerge early and influence children's interests. *Science*, 355, 389-391 or.
- Bilbao, B. (2008). Euskal curriculumaren lehen eta orain. *Ikastaria* 16, 83-108 or.
- Blanco, N. (2000). *El sexismo en los materiales educativos de la E.S.O.* Instituto Andaluz de la Mujer. Sevilla.



- Brown, C. eta Bigler, R. (2004). Children's perceptions of gender discrimination. *Developmental Psychology*,40(5).
- Brullet, C. eta Subirats, M. (1990). *La coeducación*. MEC Madril.
- Capel, R. (2007). *Mujer y educación en el Antiguo Régimen*. Universidad Complutense de Madrid.
- Dekretu 236/2015, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- Dekretu 237/1992, abuztuaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarterako Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena.
- Fresnedo, I. eta Gabilondo, J. (2018). *Betaurreko moreak gida*. Gaztematika. Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sistema.
- González Pascual, M. (2005). ¿Tienen sexo los contenidos de la Educación Física Escolar? Transmisión de estereotipos de sexo a través de los libros de texto en la etapa de Secundaria. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y el Deporte* 5, 77-88 or.
- Hendel, L. (2017). *Comunicación, infancia y adolescencia. Guía para periodistas perspectiva de género*. Unicef Argentina.
- Honrado, A., Romero, C., Luna S. eta Romo L. (2009). *Lengua castellana*, 6 primaria. Madrid. Proyecto La Casa del Saber. Santillana.
- Inspira web orria (2016). [http://inspirasteam.net/eu/conoce-el-proyecto/\\_etik/berreskuratuta](http://inspirasteam.net/eu/conoce-el-proyecto/_etik/berreskuratuta), 2019-02-27an kontsultatuta.
- L.O.G.S.E (Ley de Ordenación General del Sistema Educativo). Ley orgánica 1/1990, de 3 de octubre de 1990.
- Lagarde, M. (2009). La política feminista de la sororidad, *Mujeres en Red, el periódico feminista*, 11.
- Leaper, C. eta Friedman, C. K. (2007). The socialization of gender. *Handbook of socialization: Theory and research*, 561-587 or.
- Lirgg, C. D. (1991). Gender differences in self-confidence in physical activity: A meta-analysis of recent studies. *Journal of Sport and Exercise Psychology*,13 (3), 294-310 or.

- López, A. eta López, Á. (2012). El desconocimiento de la tradición literaria femenina y su repercusión en la falta de autoridad social de las mujeres. *Quaderns de filologia. Estudis literaris*, 17, 27-40 or.
- Mañas-Viejo, C. (2018). Coeducación: imprescindible en la formación de la Educación Infantil. El caso de la Psicología Evolutiva. *Entorno*, (66), 113-123 or.
- Mingol, I. C. (2009). Coeducation: teaching peace from a gender perspective. *Peace & Change*, 34(4), 456-470 or.
- Novoa, M. M. (2012). Diferencia entre la perspectiva de género y la ideología de género. *Dikaion: revista de actualidad jurídica*, 21(2), 337-356 or.
- Ortiz, M. (2006). Mujer y dictadura franquista. *Aposta. Revista de ciencias sociales*, 28, 1-23 or.
- Rousseau, J. J. (1990). *Emilio o De la educación*, trad. M. Armiño, Alianza, Madril.
- Salas, B. (1997). *Ikastetxearen hezkidetza-eredua egiteko gida*. Vitoria-Gasteiz. Emakunde.
- Sánchez, A. (2002). El andorcentrismo científico: el obstáculo para la igualdad de género en la escuela actual. *Educación* 29, 91-102 or.
- Scraton, Sh. (1995). *Educación Física de las niñas: Un enfoque feminista*. Morata. Madril.
- Solsona, N. (2010). Génesis y desarrollo de los saberes femeninos en la educación. *Aula de Innovación Educativa*, (191), 7-11 or.
- Subirats, M. (2009). La escuela mixta ¿garantía de coeducación?. *Participación educativa*, 11. *Revista cuatrimestral del Consejo Escolar del Estado: La educación, factor de igualdad*, 94.
- Ugarte, B. (2005). Detaile sutilen indarra. *Hik Hasi* 96, 8-17 or.
- Urruzola, M. J. (1991). La educación de las niñas desde el feminismo de la diferencia. *DUODA: estudis de la diferència sexual*, (2), 99-128 or.
- Urruzola, M. J. (1995). *Introducción a la filosofía coeducadora*. Maite Canal, Bilbo.
- Yus, R. (1998) *Temas Transversales: Hacia una nueva escuela*. Graó, Bartzelona.

## ERANSKINAK

### 1. Eranskina. Ikasleei grabatutako bideoaren transkripzioa.

#### 1. Zer da Inspira zuretzat?

- Gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko gai berri bat da. Bost arlo nagusiki aipatzen dira: Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Mate (NESKA)

#### 2. Zein izan da zure esperientzia *Inspira* egiten?

- Oso esperientzia polita, hainbat gauza berri eta hainbat balore ikasi ditudalako: emakume famatu berriak, lanbide interesgarriak... Lagundu dit ni mediku izateko nahi dudana jakiten (NESKA)

#### 3. Zer esango zenieke honi buruz 5. mailakoei?

- Oso interesgarria dela. Lehen, antzina, emakumeek ez zituztela eskubide askorik eta orain gehiago daukate baina falta da eskubide gehiago izatea berdintasuna izateko (MUTILA)

#### 4. Interesgarria izan dela uste duzu? Zergatik?

- Oso baliogarria izan da. Ez nekien zer lanbide egin nahi nuen eta orain *Inspirari* esker biologa marina eta astronomia izan nahi dut handitan (NESKA)

**2. Eranskina.** Ikasgelako nesken eta mutilen taldeak aukeratutako pertsonaia.

NESKEN TALDEA	MUTILEN TALDEA
<b>Colon:</b> Amerikara heldu zen esploratzaile italiarra 1492an.	<b>Stephen Hawking:</b> britainiar astrofisikoa. Espazioko zulo beltzen ikerketan aditua.
<b>Picasso:</b> XX. Mendeko margolari esanguratsuenetakoa.	<b>Julio Zesar:</b> erromatar politikari eta militarra.
<b>Franco:</b> Espainiako diktadorea 40 urtez.	<b>Akiles:</b> greziar mitologiako heroia, Troiako gerran nabarmendu zena.
<b>Albert Nobel:</b> 1867an dinamita asmatu zuen kimikari suediarra.	<b>Alexandro Handia:</b> Mazedoniako erregea, Inperio handiaren sortzailea.
<b>Jesse Owens:</b> 1936an Berlineko Olinpiadetan lau urrezko domina lortu zituen afroamerikarra.	<b>Gandhi:</b> Indiako independentziaren buruzagi nagusia, erresistentzia baketsuaren bultzatzailea.
<b>Samantha Cristoforetti:</b> hegazkin pilotoa eta lehen emakume astronauta italiarra.	<b>Mandela:</b> hegoafrikar politikari esanguratsua <i>Apartheiden</i> aurkako borrokan.
<b>Patricia Bath:</b> oftalmologo afroamerikarra. Kataratak operatzeko laserraren asmatzailea.	<b>Gengis Kan:</b> mongoliar gerlari eta konkistatzailea, lehen mongoliar Inperioaren sortzailea.
<b>Catherine Switzer:</b> 1967an Bostoneko maratokia dortsalarekin amaitu zuen lehen emakumea.	<b>Freddie Mercury:</b> tanzaniar jatorriko musikari, abeslari eta pianista.
<b>Florence Nightingale:</b> XIX. mendeko idazlea eta erizaintza modernoaren aitzindari britainiarra.	<b>Nikola Tesla:</b> asmatzaile eta ingeniari serbiar kroaziarra.
<b>Heidi Lamar:</b> XX. mendeko aktore, asmatzaile eta espia. Gaur eguneko wifien hastapenak asmatu zituen austriarra.	<b>Gaudi:</b> modernismo katalanaren arkitekto ezaguna.
<b>Frida Kahlo:</b> XX. mendeko margolari eta feminista mexikarra.	
<b>Ann Makosinski:</b> 21 urteko kanadiar asmatzailea. Pila gabe funtzionatzen duen linternaren asmatzailea.	
<b>Teresa Kalkutakoa:</b> Nobel saria jaso zuen albaniarra, Indiako behartsuenak laguntzeagatik.	
<b>Billie Jean King:</b> estatubatuar tenis jokalaria eta idazlea. Berdintasunaren aldeko aktibista.	

<b>Alexandriako Hipatia:</b> greziar matematikari, astronomia eta filosofoa.	
<b>Doña Casilda:</b> behartsuen alde lan egin zuen bilbotarra.	

**3. Eranskina.** *Santillana* liburuaren analisia.

GAIA	PERTSONAIAK ULERMEN TESTUETAN	PERTSONEN IRUDI-KOPURUA ETA EMAKUMEEN PRESENTZIA	ARIKETETAKO AIPAMENAK
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizonak: asko</li> <li>- Emakumeak: bakarra (zerbitzaria)</li> </ul>	8 irudi <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen presentzia: 1</li> <li>- Rola: idazten</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakume atleta.</li> <li>- Irakurtzen duen lehengusina.</li> <li>- Sukaldari ona den ama</li> <li>- Irakurle ona dena.</li> </ul>
2	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizonak: denak</li> <li>- Emakumeak: ez dago</li> </ul>	18 irudi <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen presentzia: 3</li> <li>- Rola: entzuten, hitz egiten, domina bat erakusten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguna</li> <li>- Irakaslea</li> <li>- Igerilaria</li> <li>- Eskolako zuzendaria</li> <li>- Meninak</li> <li>- Neska alaia</li> </ul>
3	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizonak: bat</li> <li>- Emakumeak: bat</li> </ul> Hala ere, emakume hau (Atalanta) garaitua izan ondoren mutilarekin ezkondu behar da.	11 irudi. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen presentzia: 4</li> <li>- Rola: etzanda, entzuten, aholkuak ematen eta distrahituta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atalantari buruz egiten diren aipamenak.</li> <li>- Laguna.</li> <li>- Irakaslea.</li> <li>- Julieta eta bere inudea.</li> <li>- Amona.</li> <li>- Laguna.</li> </ul>
4	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizonak: denak (medikuak, epaileak)</li> <li>- Emakumeak: protagonista (Agnodice) lehen greziar emakume medikua eta salbatzen dituen emakumeak</li> </ul>	14 irudi <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen presentzia: 8</li> <li>- Rola: gizonekin eztabaidan, laguntza eskaintzen, medikuarenean, aholkua ematen, biologoa, erizaina eta medikua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agnodiceri buruz egiten diren aipamenak.</li> <li>- Emakume xebleen zerrenda egitea.</li> <li>- Asmatutako mediku baten aipamena.</li> <li>- Tartak eramaten</li> <li>- 7 neska</li> <li>- Atsegina</li> <li>- Ausarta</li> <li>- Leonor, Maria, Ana eta Paula izenak</li> <li>- izeko</li> <li>- Erizaina.</li> </ul>
5	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizonak: protagonista, medikuak, eskolako zuzendaria</li> </ul>	17 irudi <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen presentzia: 9</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marta, Pilar, Carlota eta Sara izenak.</li> <li>- Atezain emakumearen lana.</li> </ul>

	<p>- Emakumeak: ama, atezaina eta arreba ordea dira.</p>	<p>- Rola: errieta egin, oharrak adierazi, gidatu, elkarrizketa, arearekin jolastu, abestu, saria erakutsi.</p>	<p>- Bidezkoa ez denaren aurka borrokatzen duena. - Comic marrazkilaria</p>
--	--	---	---